

Arabako gazte euskaltzaleak

URTE BEREAN BIGARREN TOPAKETAK EGINGO DITUZTE

Urtebeteko tarterik ere ez dute hartu bigarren topaketak egiteko. Lehenengoa 2017ko urtarrilaren 28an egin zuten eta bigarrena azaroaren 18an egingo dute. Ez da seinale txarra. Haizea Alonso Aberasturik eta Jon Insausti Bizkarrak errepikatu egingo dute. Urtarrileko topaketetan oso ondo pasa zuten eta orain gogoz eta jakin-minez gerturatuko dira Gasteiza.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: TOPAGUNEA

Arabako gazte euskaltzaleak elkartuko dira Gasteizen. Haizea Alonso baino gazteagorik apenas azalduko den topaketetara. 16 urte ditu, Gasteizen Lanbide Heziketan sukaldaritzari lotutako ikasturtea hasi berri du eta Mendialdeko Urizaharra herrikoa da. 3.000 biztanle bizi dira Mendialdean, Kanpezu du herri nagusia (1.200 biztanle inguru) eta Urizaharra 300 bat herritar bizi dira.

Urtarrileko topaketetara antolatze lanetan aritu zen Unai Vianak, Topagunean Gorbeialdeko Mintzalagunako koordinatzaileak, deituta joan zen, animatzeko esan zion eta Alonso joan egin zen. Pena du goizez ez zelako joan eta badakielako eguneko lehen zatian Araba osoko gazteek euskararen inguruan egiten ari diren esperientziak kontatu zituztela. Arratsalde-pasa hura asko gustatu zitzaion eta orain egun osorako doa. Ondo pasatzea ez da Alonsoren helburu bakarra, inguruko gazteei topaketetara joateko gogoia piztea nahiko luke, aisialdian euskara bultzatzea nahi duelako. Topaketak jendea gerturatzeke amua izan daitezkeela uste du.

Euskara etxetik eta ikastolatik jaso du. Aitak euskaraz badaki, amak ez. Izebek euskaraz egiten dute. Beste kontu bat da zenbat egiten duten euskaraz egu-

nerokoan, Alonsoren ustez, nahi baino gutxiago. Urizaharra ia urte osoan euskara oso gutxi entzuten dela dio, baina udan giroa aldatzen dela, euskara gehiago entzuten omen da. Alonsok herriko eta inguruko herrietako lagunekin gutxi egiten du euskaraz, nahiz eta badakien haietako askok euskaraz badakitela. Aldiz, Gasteizen askoz gehiago egiten du, lagun gehienekin euskaraz aritzen da. Gasteizen egin ditu ikasketak, euskaraz, eta orain ere Gasteizen ari da ikasten. Esanenez bere bigarren bizilekua dela. Arabako hiriburuan ditu lagun asko, ikastolakoak eta bestelakoak. Bere herriko eta hiriburuko giroaren artean halako diferentzia zergatik dagoen galdetu diogu eta hauxe esan digu: "Nik nabaritu dut, Gasteizen gazteen artean euskara gero eta gehiago erabiltzen da, nire inguruan behintzat bai, baina ez dakit zergatik den hala".

Topaketetara zein intentziorekin doan galdetu diogu eta esan digu jende asko joatea nahiko lukeela, ondo pasatzeko gogoia duela, euskara erabili nahi duela, eta nola ez, hirugarren topaketak antolatzea nahiko lukeela. Ez da ordea, topaketa helburu. Etxera, Urizaharrrera, itzulitakoan honelako esaldiren bat entzun nahiko luke gazteen ahotik:

"Zergatik ez dugu egiten halako edo bestelako?". Eta herria gaindituta Arabako kuadrillen artean lanean hastea nahiko luke.

Argantzunen gazteek helduko diote euskara elkarte ahulduari

Jon Insausti Bizkarra Argantzun-goa da. Argantzun Espainiako Burgos probintziako udalerrria da. Trebiñuko barrendegian dago eta Trebiñuko barrendegiko beste udalerrria Trebiñu da. Argantzunen 500 biztanle inguru bizi dira.

Insaustik 20 urte ditu eta urtarrilean Unai Vianak gonbidatuta eta Trebiñuko bi lagunekin izan zen topaketetan. Asko gustatu zitzaion, oso polita izan zela dio eta uste baino jende gehiago (60 inguru) bildu zela du gogoan. Kuadrilletako esperientziak entzutea aberasgarria izan zela uste du eta haien artean diferentzia handiak ez daudela iruditu zitzaion. Bigarren topaketetan ere izango da, baina ez urtarrilean moduan. Bigarren honetan antolaketa lantaldean izan da, Urizaharrako Haizea Alonso bezalaxe. Hainbat bilera egin dituzte topaketak antolatzeko.

Urtarrileko topaketek ezten lana egin zuten gazte batzuen artean. Argantzun-



nen euskara elkarte dago Gutxisolo izenekoa, baina kideak zahartzen ari dira eta erretiroa hartzekotan dira. Topaketetan sua piztuta, gazte batzuek txanda egitea pentsatu dute, eta elkar-tzen hasi dira. Zaharrenak 24 urte ditu. Insaustiren gertueneko bidaideak bata Sasetakoa eta bestea Saratsukoa dira, Trebiñukoak alegia.

Argantzunen euskaldunak badaudela dio, baina gazte askok Miranda de Ebron ikasi dute, gaztelaniaz, eta euskaraz ez dakite. Bere ustez, Gutxisolo elkartearen inguruko jendea eta 40 urte inguruko batzuk dira euskaraz gehien egiten dutenak: "Nahiz eta euskaldunberriak diren, edo agian horregatik, euskara lantzeko lana egin dutelako, gehiago erabiltzen dute. Gazteen artean, berriz, gutxi".

Insaustik etxean euskaraz egiten du gurasoekin eta anaiarekin. Ikasketa guz-tiak berriz, Gasteizen egin ditu, Argantzungo ikastola ez zegoeneko garaikoa baita. Euskaraz ikasi du. Ez du Haizea Alonsok bezala diferentzia handirik aurkitu Argantzunen eta Gasteizen artean. Bietan saiatzen da euskaraz egiten, beste kontu bat da zenbatetan lortzen duen hala egitea. Banakako harremanetan askoz gehiago egiten du euskaraz eta taldean gaztelaniaz.

Topaketetarako gogoz dago, baina badaki egun hori mugatua dela. Prestaketa lanetan Arabako kuadrilletako gazteei ideia piloa bururatu zaie eta Insaustiri iruditzen zaio topaketak bukatu eta gerorako zeregina izango dutela. ■



Urtarrilaren 28an elkartu ziren lehen aldiz Arabako gazte euskaldunak Topaguneak antolatutako topaketetan. 60 lagun inguru bildu ziren.

IX Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2017

azaroak 22
Carlos Santamaria zentroa
DONOSTIA

Izena emateko epea: azaroak 17


<http://www.soziolinguistika.eus/jardunaldia>

Arnasguneak eta udalerrri euskaldunak: gaurko eta biharko **#ERRONKAK**

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babeslea:

